

IZAR EGITURAKO EGURREZKO DOME-A EGUR OHOLEZ EGINA

Neurriak:

Zabalera (diametroa): 5,54 m.

Altura: 2,77 m.

Ohiko izar egiturako dome eraikuntzak banbuaz egiten dira Asian. Hemen zaila dela horrelako banbu handiak lortzea eta bertako pinuzko frisoa erabili dugu guk, malgua eta merkea delako. Neurria: 9 zm. X 1 zm. X 300 zm.-ko egurrak erabili ditugu hiruunaka lerroan loturik. Elkarren artea lotzeko M8 torloju eta azkoinak erabili ditugu arandela zabalekin.

Egurrak lotu aurretik busti egin behar izan ditugu malgutasuna hobetzeko (bestela pitzatzeko arriskua dago). Egurrak urperatuak gaua pasa ondoren hiruunaka lotu ditugu 9 m.-ko 17 pieza eraikitzeko (51 ohol behar dira). Busti ondoren kurbatura eman diegu eta lehortzen utzi okertuak daudela.

Ondoren elkarren artean lotzen dira tutoriallean dagoen eskema jarraituz, zirkulo bat lurrerako 18 m.-ko perimetroa eginaz eta bi pentagono sabaia egiteko.(bost pieza bakoitzak). Azken bost piezak tirante gisa lotzen dira egitura indartzeko.

https://translate.google.com/translate?hl=en&sl=en&tl=eu&u=http%3A%2F%2FSimplyDifferently.org%2FStar_Dome&sandbox=1